



MUSIKA

Opera komikorik serioena



OLBE

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Mozarten ekoizpen operistiko guztia zoragarria da, baina ez dut uste oker nabilenik esaten badut *Così fan tutte* Salzburgoko musikariaren ekoizpenaren une garrantzitsuenetako bat dela. Argumentu arin eta itxuraz garrantzirik gabekoa erabiliz, giza ahulezietan murgiltzen da, gizon eta emakumeen berezko ahulezietan, eta nolabait tolerantziaren errebindikazio bat da.

OLBEk ekarri zigun ekoizpena bitxia izan zitekeen zenbait alderditan. Baina nik, zalantzarik gabe, haren asmamen musikalak nabarmenduko nituzke, batez ere, antzezpen bikaina izan zela ondorioztatzeko.

Egia da aukeratutako eszenografiak ez ziola ekarpen handirik egiten libretoari eta garatzen ari zen ekintzari. Egia

da, halaber, ekintza, gutxi gorabehera *belle époque* delakoan kokatzeak eta zeri-kusirik ez duten pertsonaiak sartzeak, hala nola zeregin zehatzik gabe gora eta behera doan neurri txikiko aktore batek, ez digula antzezpenari osagai interesgarririk ematen. Baina, gutxienez, xelebrikeria txiki horiek guztiak ez ziren opera bikain honen kalitate musikala desitxuratzeko bezain larriak izan.

Nakarlariek une bikainak izan zituzten. Xabier Anduagak, beste behin ere, sekulako ahots erakustaldia egin zuen. Baina, bere emari ikaragarriaz eta proiektzio handiaz gain, legato bikaina duela erakutsi zuen, eta Mozarten partiturak eskatzen dituen *pianissimi* eta fin-tasanak maisuki menderatzen dituela.

Bestalde, gaueko beste izarretako bat Vanessa Goikoetxea izan zen, Fior-

FITXA

Emanaldia: OLBE-k antolatutako Mozarten *Così fan tutte* opera.

Euskadiko Orkestra. Zuzendaria: Óliver Díaz.

Bilboko Operaren Abesbatza. Zuzendaria: Boris Dujin.

Bakarlariak: Vanessa Goikoetxea (sopranoa), Xabier Anduaga (tenorea), Serena Malfi (mezzo), Itziar de Unda (sopranoa), David Menéndez (baritonoa), Pietro Spagnoli (baritonoa).

Eszena Zuzendaria: Marta Eguilior.

diligi rolean. Soprano honek tinbre pertsonala eta ñabarduraz betetako kantua erakutsi zituen. Bereziki distiratsua egon zen *Come scoglio* arian, baina kalitate mailari eutsi zion antzezpen osoan zehar.

Serena Malfi mezzoak ere jardun nabarmena izan zuen Dorabellaren papelean, baina Goikoetxearen distira hori falta izan zitzaion.

Itziar de Undaren aktuazioa ere nabarmendu behar dugu, Despinaren papelean, ahots-dohain zein interpretazio-dohain handiak erakutsi baitzituen.

Óliver Díaz, Euskadiko Orkestraren zuzendaria, ikuspegi pertsonal batekin aritu zen; *tempi* motel samarrekin agian, baina ez zen inbaditzailea izan abeslariarentzat, eta ez zuen osotasunaren kalitatea oztopatu. ●